

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Lehen dena zen ETA, orain mikrobus batean sartzen da

Baigorri izandako azken atxiloketen ondotik, PPko Gobernuko Barne ministro Jorge Fernandez Diazek harro hitz egin zuen. Harroputz. ETAre heriotza-agiria ere iragarri zuen, eta erakunde horretako kideak «mikrobus» batean sartzen zirela esan zuen. Gainera, Iratxe Sorzabalen eta David Plaren atxiloketaren ostean, mikrobusak ez zuela ezta gidaririk ere baieztatu zuen. Beharbada, mereziko luke erantzuna: okerrago direla gidari burugabeak, are okerrago bake aukerak aprobetxatzen ez dakiten gobernuak gidatzen badituzte. Nolanahi ere, Gobernu espainolak Euskal Herriko egoera eta bertan duen gatazka nola ulertzen dituen azaltzeko adierazpen borobila egin zuen Fernandez Diazek, betiere konponbide demokratikoen kontra.

Azkenaldian badago, halere, aldaketa nabarmen bat. Ez da denbora asko «dena da ETA» zutela tesi nagusitzat. 2011ko hauteskundeetan mikrobus bakar batean nekez sartuko lirakekeen 300.000 lagun babesa jaso zuen Bildu bera ETA zen. Zer esanik ez Jose Maria Aznar, Jaime Mayor Oreja eta Baltasar Garzon (bai, horixe bera, gaur egun ezkerreko frontearen sustatzaileetat bere burua aurkezten duen epaile ohi famatua) hirukotearen garaian: ETak egunkariak, irratia, gizarte mugimenduak, indar politikoak, gau-eskolak, enpresa andana... zitu menpeko, bere burua finantzatzeko eta bere «proiektu totalitarioa» indarren jartzeko.

«Dena da ETA» gezurra zen, gezur galanta, Estatuak abiarazi nahi zuen estrategia bat eraikitze eta justifikatzeko erabilitakoa. Ezker abertzalea indargabetzeko marraztu zuten, berriro ere gerra ikuspuntu batetik, GAL garaiko gerra zikina edo preso sakabanaketa diseinatzeko erabilitako ikuspuntu berbera.

ESTRATEGIA ALDAKETA

Ezker abertzalearen estrategia aldaketak egoera erroto aldatu zuen. Alfredo Perez Rubalcabak bota zion desafia: «bonbak edo bozak», hautatu behar horretan zatitu edo odolustuko zelakoan. Ez zen halakorik gertatu ordea, Nazio Askapenerako Euskal Mugimendua (kontzeptu hori berreskuratu zuen «Argitzen» txostenak) berrindartu

egin zen, beste fase bat irekitzeraino, eta Rubalcaba izan zen botoak galdu zituen.

Egoera aldaketak ez zuen, ordea, Estatuan hain errotoa dagoen «garaituak/garaileak» eskema aldaraztea lortu. PP iritsi zen Gobernura Aieteko Konferentzia egin eta hilabete gutxira. Egoera berriak Rajoyk aurreikusten zuen erabateko inboluzioa (Sorturen legalizazioari buruzko ebazpena egiteko zegoen, adibidez) egitea galarazi zion Gobernu berriari. Ikustekoa izango zen Norvegiar ETako ordezkari bat zuela zain esan ziotenean iritsi berria zen presidenteari. Urtebete baino gehiago baimendu zuen Rajoyk ETak, nazioarteko eragileek eta Zapaterok hitzartutako egoera hori, azkenean elkarriketarako gunea desegitea behartu zuen arte.

Denbora horretan, Gobernu estrategia «berrituz»-edo joan da, betiere gatazkaren muinari ez heltzeko asmoarekin. Arrazoi du ETak Madril konponbidearen beldur dela

Ez da denbora asko «dena da ETA» zutela tesi nagusitzat. 2011ko hauteskundeetan mikrobus bakar batean nekez sartuko lirakekeen 300.000 lagun babesa jaso zuen Bildu bera ETA zen

dioenean. Euskal Herrian ez du halako ariketa bati ekiteko proposamen eta indar demokratikorik. Horretan ere arrazoi du ETak. Hala, gatazkaren ondorioak konpontzeko edozein saio tratatzea izan du Gobernuak irizpide nagusi, maiz zentzugabe, jakinda, adibidez, Estrasburgoko Auzitegiaren belarrondokoa jasoko zuela. Hortxe dago «Parot doktrina» delakoarekin gertatutakoa.

Aurreko fasearen giroa irudikatuz eroso sentitu da. Baina, egoera horretan ere, «garaipenak» behar ditu Gobernuak, are gehiago hauteskundeak hurbil direnean. Jakina, orain ez du balio «dena da ETA» esatea. PPren gobernupean ETak Iruñeko alkatetza eskuratu duela edo Nafarroako Gobernutik UPN botatzea lortu duela adieraztea litzateke. Horregatik, orain, ETA soilik taldetxo bat da. Horixe, ETA gaizkile taldetxo bat da eta Euskal Herrian ez dago gatazka politikorik. •

NESKATOEN LAN ISILA

Ipar Euskal Herrira eta frantses Estatura neskame joandakoen lekukotasuna

 **JENDARTEA** / Maider Iantzi Goienetxe

Martxoaren 8aren bueltan aurkeztu nahi du Jon Abrilek, Beran, 50eko eta 60ko hamarkadetan Baztan-Bidasotik Lapurdiko kostaldera eta Estatu frantsesera neskame joan ziren emakumeak omentzeko eta beren lana agerian jartzeko dokumentala. Datu zehatzik ez du lortu, baina, sumatzen duenagatik, ehunka izan daitezke.

Etxean presente izan duen gaia delako hasi zen Jon Abril beratarra Baztan-Bidasotik Ipar Euskal Herrira eta Estatu frantsesera neskato joandako emakumeen historia ikertzen eta biltzen. «Amatxi, aitaren ama, 25 bat urtez Ziburuko etxe batean lanean egon zen. Alargun gelditu zen hagitz gazterik, seme-alabak ttipiak zituela, eta bizimodua aitzinera ateratzeko umeak ahizparen etxean utzi eta Ziburura joan zen».

Etxe hartan bere lau iloba egon ziren lanean momentu desberdinetan, Abrilen aitaren lehengusinak. Hala, Elhuyarreko partaidetza teknikariak lehengusinei eta amatxiri beti aditu die aunitz bertako bizipen eta istorioei buruz. Lehengusina batek 40 urte eman zituen bertan. «Hagitz arraroa zen hori. Bertze testigantza bat ere badut Arantzako emakume batena 40 urte egon zena, baina hainbertze urte jende gutxik egin zuen».

ERREFUXIATUEN ETXEETAN

Abrildarren etxean Ziburuko familia harekin harreman handia izan dute; erbesteratutako sendia zen eta «beti bertzelako ukitu bat zuen, nahiz eta aberatsa izan». Lagun ugari 36ko Gerratik ihesi joandakoen eta errefuxiatuen etxeetan egon zen. Lesakako bi emakume Telesforo Monzonenean ibili ziren zerbitzatzen, Donibane Lohizunen.

Kazetari, kultur dinamizatzaile eta politikari lanetan ere ibili den beratarra ohartu zen ez zegoela deus ere egina gaiaren in-

guruan. «Ez dago apenas dokumentaziorik. Gure eskualdean lagun ugari joan zen Ameriketara artzain eta haien istorioak aditu ditugu, pelikulak egin dira, dokumentalak, liburuak, denetarik, besta egiten da urtero... Baina emakume hauen inguruan ez dakigu deus ere». Horretaz hausnartzen hasi eta konturatu zen, zalantzarik gabe, batetik emakumeak direlako eta, bertzetik, egiten zituzten lanengatik dela, etxeko lanak eta

Lau neskato beratar Donibane Lohizunen, 50eko hamarkadan: Pakita Burgete Iratzoki, Nati Iratzoki Berasain, Mari Paz Lazkanotegi Rubio eta Pakita Iratzoki Berasain.

zainketa lanak, inork kontuan hartzen ez dituenak.

Haietako gazteenak 65 urteren bueltan dabilta, baina badi-ra aunitz dagoeneko hilak eta bertze aunitzek 80 urtetik gora dituzte. Haiek dira testigantza ia bakarrak eta lana orain egitea garrantzitsua dela nabarmendu du Abrilek.

Ikusi zuen Donostia 2016k bazuela deialdi bat halako proiektu txikietarako eta, gutxienez, testigantzak jasotzen hasi behar zuela erabaki zuen. «Dokumentalaren helburua nahiko xumea da; ez dago produkzio handi bat, lan talde zabal bat; niretzat inportanteena zen bideoan, kalitate txukunarekin testigantza horiek jasotzea eta horrekin istorioak biltzea eta jendeari kontatzea».

GEHIENAK, BAZTAN-BIDASOTIK

Abrilek 15-20 lagunuen bizipenak jasoko dituela kalkulatu du. Oraingoz hamarren bat bilduak ditu, gehienbat Bera, Lesaka eta Arantzakoak. Euskal Herriko le-

ku desberdinetatik joan ziren, baina nagusiki Baztan-Bidasotik, hurbiltasun geografikoagatik ere bai. Hortaz, bertako emakumeen bizipenetara mugatzea erabaki du.

Bizipen horietan sartuta, gehienek kontatzen dute lan hagitz gogor egiten zutela. Batzuek ez zuten paperik izan, bertzeek bai eta kotizatu eta gaur egun erretiroa jaso ahal izan dute. Orokorrean, gehienek esperientzia nahiko ona izan zuten. Tratu, salbuespenak salbuespen, nahiko ona izan zen. Kontent daude egindakoarekin eta erraten dute berriro egoera horretan baleude joanen liratekeela.

Harremana zuzena zen, baina hotza, lanarekin lotua. Ez zen sentimenduez hitz egiten. Gehienetan langile gehiago zegoen etxe berean, eta, ez bazen ahizpa bat, lehengusina bat zuten. Bakarrik egon ziren batzuek bai, bakardadea sufritu zuten. Beratar batek erraten du han ikasi zuela negar egiten eta bal-koitik begiratzen.



Donibane Lohizunen hagitz ohikoa izaten zen denek oste-
gun arratsaldea libratzea eta
hondartza inguruan edo karri-
kan bueltaxka bat ematea.
Gehienek oroitzapen hagitz
onak dituzte eta txarrak ditue-
nak normalean denbora gutxi
egin zuen etxe horretan eta ber-
tze batera joan zen eta han oroitzapen hobeak ditu.

Gehienentzat ezkondu aitzineko urteetan, gaztaroan bertze errealitate bat ezagutzeko aukera izan zen, bereziki 1950eko hamarkadan joan zirenen kasuan; hemen gerraondoa hagitz gogorra zen, errepresioa oraindik handia zen, gose-gosea agian ez baina eskasia sufritu zuten, familia handiak ziren eta beharra hagitz handia zen. «Leiho bat ireki zitzairen hain hurbil, eta, aldi berean, bertzelako askatasun batzuekin. Gehien harritzen zituena jendearen bizimodua zela, kaletik muxuak ematen ibiltzea bikoteak, nola janzten ziren... Eurek sekula ikusi gabeko hainbat gauza deskribitu zituzten».

Gehienak etxe izugarri aberastetan egon ziren eta aberastasun horrekin harrituta egoten ziren, nola bizi ziren etxetik 20-25 kilometro eskasera familia dirudun hauek.

FAMILIARI LAGUNTZEKO BIDEA

Emakume batek zazpi zerbitzari zituen; hiruzpalau laguneko familia batek bospasei zerbitzari izatea arrunta zen. Bertze batzuk neskato bat edo bi zituzten etxeetan egon ziren, baina aunitz ikaragarritzko aberastasun ekonomikoa zuten etxe handietan egon ziren eta klaseen arteko desoreka izugarriak zeuden errealitateak topatu zituzten. Alde horretatik, emakume gazte hauentzat mundu berri bat ireki zen, lan duin bat edukitzeko aukera izan zuten, lehenbizikoz kontratuarekin.

Soldatari dagokionez, Bidasorearen alde batean edo bertzean egon bost aldiz gehiago edo gutxiago irabazten zen lan bera egiteagatik. Elkarrizketatu batek azaltzen du 60ko hamarkadaren

«Dokumentalaren helburua nahiko xumea da; ez dago produkzio handi bat. Niretzat inportanteena zen bideoan, kalitate txukunean, istorioak bildu eta jendeari kontatzea»

«Leiho bat ireki zitzairen hain hurbil, eta, aldi berean, bertzelako askatasun batzuekin. Gehien harritzen zituena jendearen bizimodua zen: kaletik muxuak ematea, janzkera...»

hasieran Lesakan etxekoandre zegoela 500 pezeta irabazten zituela, eta 2.500 irabaztera joan zela. Berako bertze emakume batek dio 50eko hamarkadaren bukaeran herrian 100 pezeta irabazten zituela, eta, Donibane Lohizunen, berriz, 1.000.

Hala, emakume hauentzat beren etxeetan laguntzeko bidea izan zen eta Abrilek balioan jarri nahi du hori. Kasu batzuetan anai-arreba gazteagoek edo ilobek ikasteko aukera ere izan zuten beren ahaleginari esker.

Denak *interna* joaten ziren eta horrek etxetik kanpo 24 ordu 365 egunez egotea eskatzen zuen, baimen hagitz gutxiarekin eta oporrik apenas (geroago, 60ko hamarkadatik aitzinera hasi ziren izaten). Orduan, familiarekin justuko harremana izaten zuten.

Hurbilen egon zirenen artean, bereziki Donibane Lohizunen, Hendaian, Ziburun edota Urruñan, aunitzek hamabostean behin aukera izaten zuten etxera itzultzeko. 60ko hamarkada arte gehienek mendiz egiten zuten etxerako bidea, inolako baimenik eta paperik gabe. Ez zuten pasaporterik, eta, beraz, gordeka pasatzen zuten muga. Horrek baldintzatzen zuen noiz eta nola itzuli ere.

MENDIZ MUGA PASATZEN

Elkarrizketatu batek kontatu zion Abrili Berako hiru emakume etortzen zirela, tartean bere amatxi, hamabortzean behin, igande arratsaldea libre zutelako. Donibane Lohizunen autobusa hartu Sararaino eta bertatik Berara mendiz etortzen ziren, bizpahiru orduko bisita bat egin ahal izateko, gauean

afaria zerbitzatzera itzuli aitzinetik. «Pentsatzea ibilbide hori mendiz egiten zutela detaile bat da amatxiri behin ere aditu ez niona. Egun pentsaezina egiten zaigu gurean, edota munduko bertze toki batzuekin lotzen ditugu bizi baldintza horiek».

60ko hamarkadan aunitz aldatu zen egoera, pasaportea lortu eta horrekin nahiko erraz pasatzen zuten muga. Bertzelako baldintzak sortu ziren. Baina imajinatu 50eko hamarkadan Parisen egon ziren emakumeen egoera. Ez bazuten oporrik eta etxean ez bazegoen telefonorik gutuna zen harremanetarako bide bakarra. Eta pentsatu behar dugu segur aski etxeetako aunitzetan gurasoek idazteko gaitasun gutxi zutela. Anai-arrebaren batek idatziko zuen.

Herri txiki batetik Parisera joatea salto handia zen. Goizueta-ko andre batek erraten du baserri batetik atera eta Parisen bukatzean dena zela ikaragarria. Beratar bat paperik gabe joan zen hiriburu frantsesera eta metroan-eta sekula ez zuen hitzik egiten, poliziek harrapatuko zuten beldurrez. Segur aski gauza polit aunitz bizi izan zituzten, baina baldintza gogorretan.

Badira sasoi bat egitera joan zirenak, gehienak Lapurdiko kostaldera. Aste Santutik urrira izaten ahal zen, edo ekainetik irailera. Aunitz aritu ziren horrela, baina bertze aunitz urte osorako joan ziren, eta lauzpabost urte egin zituzten lagun ugarik, 18 urte bete eta ezkondu bitarteko urteak. Badira 10-12 urte egin zituztenak, eta hagitz kasu arraroak dira 20 urtetik gora egin zituztenak. Bi pertsona aurkitu ditu Abrilek 40 urte



Mari Carmen eta Oliva Tapia Goñi ahizpak, Telesforo Monzonen etxean.

egin zituztenak, ezkondu ez, betiko etxe hartan gelditu eta etxekotzat hartu zituztenak. Bat etxe partikular batean egon zen 40 urteak, beti lan bertsuak egiten, eta bertzea hoteletan aritu zen, batean hogeitau urte eta hura ixtean bertze batean bertze hainbertze.

ARANTZARRAK, HOTELETARA

Arantzako emakume asko hoteletara joan ziren lanera. Beratarak eta lesakarrak gehiago izan ziren etxe partikularretan. Ez da kasualitatea, herriko lagun bidez bilatzen zelako lana nagusiki.

Bereziki 60ko hamarkadan gehientsuenak 18 urteak beteta joaten ziren, baina 14 urterekin joan ziren batzuk eta 15-16-17 urterekin aunitz. Nonbait 60ko hamarkadatik aitzinera gehixeago kontrolatzen hasi ziren eta 18 urteak beteak izatea eskatzen zuten. Ohikoa izan zen 18tik

25eko adin tarte horretan egotea; beranduxeago joan zirenak ere izan ziren, ordea, 25 urteak beteta, etxeko egoeragatik eta ez zutelako lanik harrapatzen. 40 urte egin zituzten bi emakumeek 25 urteak beteta alde egin zuten.

Abrili arreta ematen zion gauza batek. Iruditzen zitzaion 60 eta bereziki 50eko hamarkadan Ipar Euskal Herrian ere egonen zirela emakumeak neskato lanerako. Frantzia ere Bigarren Mundu Gerratik atera berria zen eta ekonomia ez zen ikaragarria izan, baina dirudienez ez zegoen ongi ikusia Iparraldeko emakumeen artean etxeetan lan egitea eta nahiago zuten bertzelako zeregin batzuetan aritzea. Nekazaritzak beti indar gehixeago izan du, industrializazioa hasia zen eta emakumeek sarbidea izan zuten bertara, eta ikasteko ere aunitzez aukera gehiago izan zuten Hegoaldean baino.

SAGRARIO GOÑI

FOIX-EN NESKATO IBILITAKO BERATARRA

«Denborarekin konturatzen zara bi haur izanik hirugarren bat hartu zutela, nik oraindik 14 urte nituelako eta haurra nintzelako»



Andoni CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Beharrak eraman zuen Sagrario Goñi beratarra Midi Pirinioetako Foix herrira, Andorratik hurbil. 14 urte zituen. «Sei anai-arreba ginen. Badakizu, aho aunitz ginen, gu eta ama eta aita. Maizterrak ginen. Horrek erran nahi du lanak erdibana direla nagusiarekin. Onena jabearendako izaten da eta txarrena maizterrarendako. Goserik ez genuen pasatu, baina bai beharra», hasi zaigu 67

urteko emakumea kontaktzen, Olaseneko Borda baserriko paraje eder eta lasaian kafea ateratzen digun bitartean. Alaia da, beti irribarrez, eta hala oroitzen ditu neskato ibili zen garaiak ere. «Aunitz oroitzen naiz nondik heldu naizen, nor naizen eta non bukatuko dudana», dio.

Nola sortu zen Foixera joateko aukera?

Amaren lehengusina batek hotelean lan egiten zuen eta bertako semea arantzarra zen. Hark erran zion neska bat behar zuela haurrak zaintzeko. Neska bat zuen 4 urtekoa eta mutiko bat 4 hilabetekoa. Izebak erran zion amari eta amak: «Bale, espresa da. Ausarta da, badaki moldatzen eta ez da gibelera gelditzen, aurpegi handikoa da». Eskola “bukatua” nuenez (ez ginen sobera

joaten), amari ongi iruditu zitzaion. Galdetu zidan? Ez dut uste. Pentsatu zuten ongi izanen zela joatea eta baietz erantzun zion. Ez zuen ezagutzen nor zen, baina nik 14 urte egin nituen maiatzaren 7an eta irailaren 1ean nire bila etorri zen gizona. Berekin joan nintzen, Hendaian hartu zuen bere familia eta Foixera joan ginen guztiok. Han egon nintzen hiru urte haurrak zaintzen.

Bisitan etortzeko aukera izan zenuen?
Hiru hilabetetan izaten genuen aukera. Andrea maisua zen eta gizonak trenetan lan egiten zuen. Orduan, emakumeak oporrak hartzen zituenean Hendaia etortzen ziren, etxea zutelako bertan. Ekartzen ninduten eta aste bat inguru egoten nintzen etxean. Gero Hendaia joaten nintzen haurrak zaintzera eta handik Foixera. Udan gauza bera. Denbora gehiago egoten nintzen, baina berriz joaten nintzen bueltan, haurrak zaintzeko eta etxea moldatzeko.

Ba al zenekien etxeko lanak egiten?
Deus ere. 12 urterekin Berako mutiko bat zaintzen egon nintzen bi urtez. Eskolatik atera, paseatu eta gauzez etxera eramaten nuen. Baina ez nekien ez janzten ez ezer. Baserrikoak ginen baina kalekumeak ginen, egun guzia kanpoan pasatzen genuelako. Ez zen orain bezala goizean jaiki, ohantzeak egin, etxeko lanak egin... Ez. Ama baratzeria joaten zen, aita landara eta gu kanpoan ibiltzen ginen. 14 urterekin haur hutsa nintzen. Desberdintasuna badago noski lehengo 14 urteetatik oraingoetara, baina nik uste beti direla 14 urte.

Nola moldatu zinen hizkuntzarekin?
Eurak frantsesak ziren. Gizonak bazekien euskaraz eta erdaraz, baina ez nuen aste guztian ikusten. Emazteak frantsesez bakarrik solas egiten zuen eta nik ez nekien. “Bai” eta “ez” banekien erraten, baina elkarrizketa bat izateko deus. Zailena izan zen Foxera irailaren 1ean arratsez ailegatu eta, biharamunean, 08.00etan bakarrik gelditzea bi haurrekin. Etxea ez zegoen herri erdian, kanpoan zegoen; orduan neska eskolara eraman eta mutikoa zaindu behar nuen. Zer erran behar nion? Euskaraz solas egiten nion. Erdaraz ere hagitz gutxi nekien; garai hartan euskaldun izatea zaila zen erdaldunek irri egiten zigutelako, eta gu saiatzen ginen erdaraz egiten eta ikasi genuen. Eta frantsesa ez nekien deus ere. Baina hor gertatu zena da Foixen badagoela dialekto bat, patua.

Lehenago ikasi nuen patua frantsesa baino. Errazagoa zen ikasteko.

Etxean erabiltzen zuten?

Ez, etxean ez, kanpoan. Harremanak egin nituen bizilagun batzuekin, senar-emazte zahar batzuekin. Maitasun pixka bat nahi nuen eta eurekin harrapatu nuen. Eta eurek bai solas egiten zutela patua. Eta ikasi nuen. Eta gero frantsesa, beharrezkoa. Bestela... Neskarekin ikasi nuen, telebista ikusten eta egunkariak eta aldizkariak irakurtzen.

Etxekotzat hartu zintuzten?

Bai, ez nuelako ez paperik eta ez deus. Immigrante bat nintzen. Gaixorik jartzen baldin banintzen medikuarengana eramaten ninduen andreak, baina bere kartilarekin erosten zizkidan medikamentuak. Han legez kanpo nintzen. Gainera, hemen muga pasatzeko *salvoconducto* bat behar nuen, baina 15 egunerako bakarrik egiten zuten eta ni bueltatzen nintzelarik hura jada iraungita zegoen. Hor arazoa izaten zen niri berriz Irunera sartzen uzteko.

Eta nola egiten zenuen?

Negarrez hasi. Ez zen zaila izaten. Aise egiten nuen negar. Pena eman eta «*vete, vete*» erraten zidaten.

Neska aunitz joan zineten neskato.

Zonalde honetan ginenean [Foixen hiru urte eman ondotik, Lapurdiko kostaldean ibili zen Goñi], tropelean etortzen ginen igandetean etxera. Zubia pasatzen genuen oinez eta autobusa hartzen genuen Sunbillakoek, Etxalarkoek, Arantzakoek, Lesakakoek, guk... Denok etortzen ginen elkarrekin, denok ginen igandea libre genuen neskatoak. Baina denak hurbilean ginen eta 17-18-19 urte genituen.

Foixen hemen baino aunitzez gehiago irabazten zen?

Hilabetean 100 franko ematen zizkidaten, eta, frankoaren aldaketaren arabera, 800 edo 1.000 pezeta ateratzen ahal ziren. Orduan, orain dela 52-53 urte, diru pila bat zen. Gorde egiten nuen eta etortzen nintzelarik aita Irunera joaten zen bila. Etxera etortzen ginen, eta, igandea edo astelehena izan, bankuan dirua aldatzen zuten. Aitak susmoa bazuen biharamun goizean frankoa altxatuko zela, egun bat esperatzen genuen. 20 *duro* suposatzen zituen, baina garai hartan diru aunitz zen. Aldaketa egin eta bertze hiru hilabete bizitzeko bazuten. Baina hemen ez zen



dirurik irabazten. Anaia Migel ere lanean hasi zen, 11 urterekin-edo hasiko zen Larhunen. Diru hori ere etxerako zen.

Zuentzat ere zerbait ailegatzen zen edo dena zen etxerako?

Dena zen etxerako. Pixka bat guretzako gelditzen fabrikan lanean ginelarik hasi ginen, hamar urte geroago. Baina gazteago ginenean, Altxateko plazan dantzatzeko ez genuen dirurik behar. Orduan pezeta bat izugarritzkoa izaten zen. Orain emazkiozu bost xentimo haur bati!

Ze bizimodu desberdina...

Ze desberdina! Beti erraten dut gora sobera egin genuela eta orain behera aunitz kostatzen ari dela egitea, ohituak gaudelako goiti hagitz agudo joaten. Eta nik uste dut gure belaunaldia lana egiteko, borroka egiteko izan dela. Gure gurasoen bizimodua aitzinera ateratzeko, eta orain gure seme-alabei laguntzea tokatzen zaigu.

Beti lanerako zaudetela ematen du...

Bai. Erdian gaude eta lana egiteko jai oak gara. Orain gazteek ez dute lan egiteko guk izan genuen modurik. Guk bagenuen modua lan egiteko, besta egiteko eta gero, azkenean, diru pixka bat egiteko. Gaurko gazteak besta egiten ahal du, baina batzuek dirurik ez dute, lagundu behar diezu; ez badute lanik, gaizki.

Foixeko esperientziaren zein balorazio eginen zenuke?

Ona. Foixera joan nintzenean harrituta gelditu nintzen. Beran etxe zahar batean bizi nintzen, dena zuloz betea, eta pisu bildu batera joan nintzen eta bazegoen bainera bat. «Hau zertarako ote da?», galdetzen nuen. Guk ez genuen. Eta bainatzen nintzen... Dena berria zen. Balkoia zuen, izugarritzko paisaia polita zen... Eta gero, bazenuen labea, frigorifikoa, telebista... Nik ez nuen deus ezagutzen. Beti sukalde ekonomikoa genuen, jaiki eta sua pizten genuen.

Harrigarria izan zen aldaketa hori, han zenbatez aitzinduagoak zeuden. Baina bertzela, jendearekin ez dut inoiz arazorik izan, eta jendeak nirekin ere ez. Bertze toki batera joaten bazara, hango ohiturak ikasi beharko dituzu, eta ongi joan zitzaidan. Negar egin nuen, jakina. Eta denborarekin konturatzen zara emakume hark bi haur izanik hirugarrena hartu zuela, ni oraindik haurra nintzelako. Ez nekien etxeko lanak egiten eta berak erakutsi zidan. Ez nion ulertzen, arre erraten bazidan nik so... Erabat desberdina zen eta egin arte denbora bat pasatzen da. Nik uste lauzpabost hilabete pasa zirenean gauzak hobeki joaten hasi zirela. Ez zuen horrenbertze oihu egiten.

Bazenuen Foixen hemendik joandako bertze neska ezagunik?

Ez. Eta ez nuen ezagutzen nire etxeko andrea ere. Lehenbiziko aldiz joan nintzen egunean ikusi nuen. Neska eskolara eraman eta denbora aunitz pasatzen nuen mutikoarekin. Nirea bezala zen. Orain legeak ez dizu uzten 4 urteko eta 4 hilabeteko bi haur 14 urteko bati uztea, baina lehen hala zen. Ez nintzen galtzen, galdetzen nuen laguntza nire hizkuntzan eta kasu egiten zidaten, mutikoa ez bazen ongi edo edozein gauza. Baina jarri 14 urteko haur baten lekuan: 08.00etan jaiki eta bi haur zure magalean.

Bazkaria ere prestatzen zenuen?

Andreak egiten zuen, eta haurrak etorri orduko nik erdia jana nuen; ez nuen deus egitekorik, bada jan! Hirugarren haurra nintzen.

Bakarrik sentitu zinen?


Bai. Bakarrik sentitu nintzen, negar aunitz egiten nuen eta Radio Andorra paratzen nuen. Erdaraz egiten zuen eta egun osoan hura aditzen nuen. Juanito Valderramak “El emigrante” kanta kantatzen zuen eta ni egun osoa hura aditzen eta negarrez egoten nintzen.

Identifikatua sentituko zinen...

Bai, beti. Gaur den egunean ere aditzen dudanean identifikatuta sentitzen naiz. Bigarren aldiz bueltatu nintzenean trenez egin nuen bidaia eta orain etorkinez beteta ikusten diren trenak bezalakoak ziren. Lehenbiziko etortzen zaidana usain berezia da, izerdiarena, jende multzoarena. Orain immigranteak eta errefuxiatuak ikustean tristura ematen dit; ni neroni immigrantea izan nintzen, baina ongi egon nintzen.

AUKERAK

Bakarrik joanda azkarrago irits gaitezke...



Baina elkarrekin joanda urrutiago!



iRRITZIA:



Ainara
Azpiazu
«Axi»

Ifrentzuko mundua

Koldo Sagasti

Bazen behin otso txiki zintzo bat, arkume guztien jazarpena pairatzen zuena. Baziren, halaber, printze gaizto bat, sorgin eder bat eta pirata ondradu bat. Gauza horiek guztiak ziren behin, hankaz gorako mundua amestu nuenean. Halaxe kantatu zituen Paco Ibañezek Jose Agustin Goitisoloren hitzak. Bartzelonakoak irudikatutako ifrentzuko mundu horretan gaizkile ankerrena bihotz oneko aurkezten zaigu, eta onbera zital. Behinola idazleak mundu zoroaren iruditzat baliotutakoa, aldiz, arruntzat dugu gaur. Hain da handia hedabide hegemonikoek guregan duten eragina, non aldrebesko kontakizuna errepikatuaren errepika-

tuaz otso gizajoa gupidatzera eta bildots ankerra gaitzestera iritsi garen. Horregatik, akaso, ez gara gehiegi asaldatzen Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeko presidente berria Saudi Arabiako ordezkaria izango dela ezagutzen dugunean, edo erakunde bereko Deskolonizazio Batzordeko presidenteorde Israelgo delegatua izendatu dutela entzutean. Hala xe da, disidenteak dekapitatu eta gurutziltzatzen dituen erresumako eleduna izango da munduan giza eskubideak jagoteaz arduratzen den batzordeko buru; eta garbiketa etnikoaren indarrez 68 urteko okupazioa burutu duen eta kolonizazio politikak ezarritik sei milioi lagun erbestera bidali di-

tuen estatuko ordezkariak goi mailako ardura izango du kolonizazioarekin bertan behera amaitzeko betebeharra duen batzordean. Lehena, Faisal Bin Hassan Trad, irailaren 17an izendatu zuen NBEko batzordeak, «giza eskubideen arloan eskarmentu handiko aditua» delakoan; bigarrenak, Mordehai Amohaik, babes handia jaso zuen ekainaren 19ko bozketan, tartean Europako herrialde guztiena. Albisteak ez du apenas oihartzunik izan, baina ez da harritzekoa Defentsa Ministerioaren buruzagitza barreiatze-bonbak ekoiztuz aberastutako tipo bat duen estatu batean. Errealitateak gainditu egiten ditu egunero Goitisoloren aurreikuspenak. •

Boterea eskura

Saioa Iraola

Kataluniako prozesu soberanista iritsi da jokaleku berrira, erabakitze-ko eskubidea gauzatzeko ahalegi-nean bide luzea egin eta gero: prozesuarekin jarraitzeko aski babes jaso dute independentistek, baina ez nahi adina. Beste negoziazio aldi bat hasiko da orain. Euskal Herrian, Gure Esku Dago dinamikak hausnarketa prozesua iragarri berri du, «zer, noiz eta nola erabaki» adosteko; bake prozesua «une erabakigarrian» dela adierazi dute Nazioarteko Harreman Taldeko ki-deek; EAJk, aldiz, autogobernuan adostasunari aukera ematen jarraitzen du EAErako estatus politiko berria lortzeko sistema hitzartuan sinetsiz; eta EH Bilduk, bestalde, galdeketa egingo dituela iragarri du. Afera bizi-bizi dago. Herriaren burujabetza prozesua erabakitze-ko ahalmenarekin estuki lotuta dago, etorkizun politikoa era-

bakitze-ko ahalmen politikoa lortzearekin, alegia. Boterea, hortaz, bada gure gorputzetatik “kanpoko” erabakitze-ko ahalmena izatea, nahiz eta hori bakarrik ez den. Eta botere hori egituratzeko zapalkuntza sistemak (zuzenekoa edo ez-zuzenekoa izan liteke) baliatzen dira, eta hiru eragin-gune nagusi ditu guretzat, feministontzat: etxea-familia, intimoa (emozioak, autoestimua, nork bere buruarekin duen harremana, obediencia, kastiguaren izua) eta estatua-publikoa (legeak, ideologia, moralak, eskolak, eliza, errekurso ekonomikoak, hizkuntza...). Horrenbestez, Euskal Herriaren burujabetza prozesuan etengabeko soka-tiran gabiltza botere jabetzaren alde, boterea eskuratzeak ahalmena, indarra, aukera eskaintzen baitigu aldaketarako. Baina zein da euskal herritar gisa lortu nahi dugun boterea? Zer da guretzat boterea eskuratzea?

Zertarako nahi eta behar dugu boterea? Herriaren botere-hartze prozesuan, ezinbestekotzat ikusten ditut eragin-gune desberdinak kontuan hartzea, botere-hartzea prozesu bat dela onartzea eta “kanpoari zein barruari” eragiten diola aitortzea, boteretze-ahalduntze kolektibo bat abiarazi edota indartuko badugu behintzat Euskal Herrian. Gutxiagotzen duen boterea edo gehitzen duen boterea (horizontala, herritarra, kolektiboa, komunala) izan liteke guk aldarrikatzen dugun botere-hartzea. Dominazioaren eta subordinazioaren arabera gain-botereari iskin egin eta botere harremanak eraldatu dituen indar kolektibo bat erdiesteko oinarri bateratu bat lortzea izan genezake apustu: boterea norekin, boterea norentzat eta boterea nondik adostuta. •

INTERNETETIK KAFETEGIRA

Connectikae elkarteak Ipar Euskal Herriko sare sozialen erabiltzaileak elkartu ditu

 **JENDARTEA** / Idoia Eraso

«Tweetcafe» eta «tweetapero» traolak baliatuta hitzordu gero eta jendetsuagoak antolatzen ari dira Baiona aldean. Twitterren hitzordua jarrita edari edo mokadu baten inguruan biltzen hasi ostean, pausu berri bat eman dute orain Joanes Andueza eta Brice Martinellik: Connectikae elkarte sortu dute sare sozialen erabiltzaileak biltzea xede.

Euskal Herriko txiolari komunitatea ezagutu nahi dugu. Twitterreko ideia birtualetik errealtatera pasa», azaldu du Joanes Andueza Connectikae elkarte sortzaileak. Orain arte hiru *tweetcafe* eta *tweetapero* bat antolatu ditu baionarrak, eta orain pausu berri bat eman du Connectikae elkartearen sorrerarekin.

Elkartea sortu zenetik lehen *tweetaperoa* izan zen joan den astean Bidarteko Spot tabernan. Izarbel Teknogunean dagoen ostatua ez zuten nolanahi aukeratu, orain arte egin dituzten beste hitzorduetan hartutako bidea jarraiki. «Maite ditugun gauzak eta tokiak sostengatu eta garatu nahi ditugu», nabarmentzen du Anduezak. Internet euskarri izanik, mundu errealean atzeman daitezkeen gauzen berri eman nahi dute, eta aurrez aurreko erlazioak garatu.

2015eko otsailean antolatu zuten lehendabiziko *tweetcafe*-a Kalostrape ostatuan egin zuten. AEK-k Baionan duen tabernan hamar pertsona inguru bildu ziren, baina kopuru hori gora egin hasi zen hurrengo hitzorduetan. Jendea biltzen zela ikusirik eta Internetek gure bizitzan duen tokia zein den egiaztaturik, «zerbait egiteko bazela» pentsatu zuten Joanes Anduezak eta Brice Martinellik. Eta aurerra egin zuten.

Teknologia digitalak eta Euskal Herriaren garapena elkartu nahi dituzte. Turismoa, enpresak, eragileak, hitzordu kulturalak... Sareak ematen dituen aukerak bezala, Connectikae elkartearen eremua anitza da. «Adibidez, festibalekin lan egin ahal dugu, promozionatuz eta aldi berean zer gustatzen zaigun eta zer ez esanez».

ENBAXADOREAK

Elkartean parte hartzen duten pertsonekin enbaxadore siste-

Brice Mortellini eta Joanes Andueza dira eremu digitalean eragitea helburu duen Connectikae elkartearen sortzaileak.
Isabelle MIQUELESTORENA

ma bat sortu nahi dute: «Kide bakoitza parte izango da bere iritzia emanez. Guk horren bitartez toki edo ekintza bati ikusgarritasuna ematen diogu eta gure partaide izaten ahal da».

Elkartea agorrilean sortu zen, eta webgunea egin dute: Connectikae.com. Horrez gain izen-ematea zabaldu dute, eta, abiatutako dinamikari jarraipena emanez, Bidarteko lehen hitzordua antolatu zuten. Elkartearen jardunaren berri izateko Twitterren jarrai daiteke, eta blogeko berriak segi edota *newsletter*-a jaso. Euskarri horien bitartez ekimen edo ekitaldien informazioa edo aktualitatearen berri jaso daiteke, baina ez soilik. Jar-duera ekonomikoago baterako bidea ere izanen da, eskaintzak, beherapenak edo publizitatea helarazteko. Azken hori ez dago edonori irekita, baldintza batzuk egon badirelako onartua izateko; adibidez, produktuak edo enpresak bertakoak izan behar dira, eta ekonomia soziala sustatu behar dute.

Kulturaren inguruko berriak hedatzea ere lehentasunetako bat da, eta, *tweetcafe* edo *tweetapero*-en kokapenaren aukeraketan bezala, antolatzaileek maite dituzten egitasmoak bul-





SAREA, AURREZ AURREKO ERLAZIOAK SORTZEKO

Ipar Euskal Herrian antolatzen hasi diren *tweetapero* eta *tweetcafe*-ak berritasuna dira gurean. Aldiz, Twitter harreman sozialak sortzeko tresna oso hedatua da nazioartean. 2006an Jack Dorsey, Evan Williams, Biz Stone eta Noha Glassek Twitter sortu zutenean, ez zen inondik inora erraz aurreikustekoa Interneten murgildu eta 140 karaktereko mezuen bitartez sortuko zen mundu mailako dinamika.

Twitter sare sozial bat izanik, eremu digitalean gizarteratzeko era bat da. Baina Lapurdin antolatzen ari diren ekimenek erakusten duten bezala, aurrez aurreko hitzordu bilakatzeko aukera ere eskaintzen du. Hala, maitasun edo sexu erlazioak sortzeko hitzorduak aurki daitezke, baita parranda egitekoak ere. Erabilpen hori hain dago hedatuta, erlazioak «birtualetik errealer» pasatzeak sortzen duen estresari aurre egiteko teknika psikologiko ezberdinak ere sortu direla.

Baina badira bestelako erabilpenak egiten dituztenak ere. Historialarien arteko hitzorduak, jarraitzaileekin hitzorduak finkatzen dituzten idazleak, politikaren inguruko taldeak... ditugu adibide. Madrilen, esaterako, diabetesaren inguruko bilera bat egin zen. Estatu espainol osoko txiolaria eta blogariak elkartu ziren mediku, nutrizionista eta endokrinoekin eritasunari buruz mintzatzeko. Bertaratutakoez gain beste 1.200 bat lagunek ere parte hartu zuten hitzorduan Twitter bidez, galderak eta iruzkinak eginez.

tzatuko dituzte. Hala, euskara sostengatzea ere nahi dute, lehiaketak, topaketak eta beste-lako hitzorduei toki eginez.

Aktualitateari lotuta den informazioaz gain Euskal Herriko errealtatearen berri ematea ere badute helburu. Horren adibide da azken *tweetapero*-an izan zen hitzartzea. Mugaz gaindiko bi-daietarako informazioa hedatzen duen Transfermuga.eu webgunearen eta horren atzean den dinamikaren berri emateko hitzaldia izan zen. Azalpenak proiektu, pertsona, elkarte edo enpresei irekita izanen dira.

GARAPENA

«Potentzial handiko egitasmoa da Connectikae», nabarmentzen dute elkartearen sortzaileak. Twitter izan badute ere abiapuntu, beste sare sozial batzue-tara hedatzea ere aurreikusten dute, Internet egun oinarritzko tresna baita. Bide horretan Facebook sare sozialean sartu dira, eta Instagram bertan ere tokia egiteko asmoa agertu dute. «Jende interesgarri asko aurkitzen da sare ezberdinetan, eta gure dinamika guztiz irekia da. Sare sozialen indarra hori da», nabarmentzen du Anduezak.

Bidarteko Spot ostatuan antolatu zuten Twitter bidez ezagututako pertsonen arteko azken hitzordua.

Isabelle MIQUELESTORENA

Ipar Euskal Herrian sortu den dinamika hedatzea dute xede: «Hegoaldearekin zubi lana egin nahi dugu, sare bat sortzeko». Orain arte dinamikaren hizkuntza frantsesa izan bada ere, «Hegoaldera pasatakoan euskara baliatuko» dutela nabarmendu Anduezak. «Hegoaldea ez dut anitz ezagutzen, baina Twitterren aktiboagoa da Iparraldea baino, eta proiektu honen bitartez ezagutu nahiko nuke», adierazi digu. Sortzaileak txiolaria erakartzeko baliatu du parada: «Bestaldeko txiolariei dei egiten diet gure proiektuan parte har dezaten». Connectikae sortu berria izanik, lehen epe batean proiektua Ipar Euskal Herrian kokatzea eta ezagutaraztea dute xede. Gero, hiru eta sei hilabete arteko epean, Bidasoaren bestal-dera salto egin nahi dute.

ASKOTARIKO JENDEA

Interneten eta sare sozialetan ibiltzeko ohitura duten pertsonak biltzen dira antolatzen dituzten ekimenetan, elkar ezagutza Twitter bitartez eginga baita. Baina oinarritzko lotura horretatik aurrera aniztasuna ageria da bildutakoen artean. «Oso interesgarria da, jende mota oso ez-

berdinak elkartzen gara: enpresariak, kazetariak, komertzialak, ikasleak...», azaldu digu Anduezak. Aniztasuna beste maila batzuetan ere ageria da: emakume zein gizonezkoak, gaztetxoak zein adin batekoak... Semea besoetan hartuta hurbildu zen gizon bat ere izan zen azken hitzorduan.

Behin elkartuta, aurkezpenak egin eta denak batera edo taldetxotan bildu eta mintzatzeko dira. Hizketagaiak ez daude definituta, baina aktualitatearen inguruan aritzen dira batik bat, baita gustuko dutenari eta ez dutenari buruz ere. «Jende interesgarria» ezagutzeko parada da antolatzaileen ustez. Ordenagailu edo telefono aurrean luze egotera ohitutako pertsonak izanik ere hitzorduotan biltzen direnak, sakelakoak alde batera utzi eta aurrez aurreko erlazioetan murgiltzen dira.

Antolatutako ekimenetan bildutako gehienak Baionakoak dira eta bertan egin ohi dituzte hitzorduak. Baina geografiak ekartzen duen mugaren jakinean, azken hitzordua Bidarten antolatzea deliberatu zuten, eta hurrengo Biarritz edo Angelun egitea aurreikusi dute.